



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko azaroaren 26a

101. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5b) artikulua aldatzen duena. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babes adierazten dio Hipotekek Kaltetutako Plataformek bultzatu duten legegintzako herri-ekimenaren izapidetzeari. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da funts publikoak erretira ditzan lehenengo etxebizitzaren utzarazpenak gauzatzeko dituzten entitate finantzarioetatik. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontu-ahalegin bat egin dezan kulturaren arloan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legezko ekimena abian jar dezan, Nafarroako Parlamentua izate aldera Nafarroako herriaren ordezkari demokratikoa Estatuarekiko negoziazioetan. Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2013ko ekaina eta azaroa bitartean egin ditzan Ledeako zubia sendotzeko lanak. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekimenak presta ditzan Martzillako Ultracongelados de la Ribera hutsik geratuko litzatekeen azpiegituraren ustiapenerako. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berrazter ditzan entitate finantzarioekin dituen harreman operatiboak. Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez diezaien dietarik ordaindu bilkuretara joaten ez diren Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko administrazio kontseiluetako kideei. Enrique Martín de Marcos jaunak aurkeztu du (12. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Parlamentu honek eginiko eskaria eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioari eska diezaion LTDaren emisioetarako berariazko barruti baterako lizentziak emateko Baztan-Bidasoan. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (13. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasuneko kontseilariak lan-bilera bat egin dezan Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeetako langileen ordezkariekin, zerbitzua kanpoan kontratatzeko erabakia azaltzeko haiei. Osasun Batzordeak onetsia (14. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, Asiako liztorrak Nafarroako erlezaintzan duen eraginari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (15. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroak ekitaldirik egingen duen Espainian 2013an ospatuko den Gaixotasun Arraroen Urtearekin lotuta, Maite Esporrín Las Heras andreak egin (16. or.).
- Galdera, zaintzako langileei euskarazko prestakuntza ukatzeari buruzkoa, Euskarabideak ikastaro batean onartu eta gero, Nekane Pérez Irazabal andreak egin (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak izanen duen jarrerari buruzkoa, Nafarroako Foru Komunitatean farmazia-prestazioak osatzeari buruzko Foru Legearen aurka aurkeztu den errekurtoa dela-eta, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin (17. or.).
- Galdera, jakitekoa aurreikusita ote dagoen kalteordainik ematea eraikuntza enpresari, Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegiko lanen etetea dela-eta, Amaya Zarranz Errea andreak egin (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko laborategi zentralizatuetan egingen den analitika motari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin (19. or.).
- Galdera, 2011n eta 2012an entitate pribatuekin eginiko osasun arloko deribazio eta itunen datuei buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin (19. or.).
- Galdera, Espacios Culturales, S.A. enpresa publikoak azken kontabilitate-itxierara arte izandako bilakeari eta 2012ko abenduaren 31ko itxiera-aurreikuspen eskuragarriari buruzkoa. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetuko da (20. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5b) artikulua aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5b) artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5b) artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5b) artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena**

### ZIOEN AZALPENA

Euskarari buruzko Legea aldatzeko saio asko egin izan dira, baina 1986az geroztik behin bakarrik aldatu izan da. Bitarte horretan, Nafarroako gizartean aldaketa soziolinguistiko handiak gertatu dira, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eginiko V. Inkesta Soziolinguistikoan ikus daitekeenez, eta horrek erakusten du herritarrek jarrera positiboa dutela euskarari eta, zehazki, hezkuntza euskaraz jasotzeko aukerari dagokienez, alde batera utzita zein eremutan bizi diren.

Hizkuntza Gutxituen Europako Ituna betetzen ote den begiratzen duen Adituen Batzordeak eginiko azken txostenean, zeina urriaren 23an onetsi baitzen, Europako Kontseiluak txalotu egiten du eremu mistoa zabaldu izana, haren ustez eremu mistoa zabaltzea ona delako hezkuntza eskaintzarako. Ituna 1992ko azaroaren 5ean berretsi zuten, Estrasburgon, Europako hizkuntza guztien defentsarako eta sustapenerako Europako Kontseiluko estatu kideek.

Beriaingo Udalak, 2012ko azaroaren 6an egindako Osoko Bilkuran, gehiengo osoz onetsi zuen Nafarroako Gobernuari eskatzea herria eremu mistoan sar dadin, eta besteak beste Beriain izan zenez Euskarari buruzko Legeko 5. artikuluko b) letraren aldaketan hasiera batez proposatutako herrietarik bat, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzeko proposamen hau aurkezten dugu:

### **Artikulu bakarra.**

“Honela geldituko da idatzirik Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5. artikuluko b) letra:

Eremu mistoa, ondoko udalerriek osatua: Abar-tzuza, Agoitz, Antsoain, Aranguren, Artzibar, Atarrabia, Atetz, Barañain, Beraskoain, Beriain, Berriobeiti, Berriozar, Bidankoze, Bidaurreta, Burgi, Burlata, Deierrri, Eguesibar, Erronkari, Espartza Zaraitzu, Etxarri, Etxauri, Ezkabarte, Ezkaroze, Galar, Garde, Gares, Gesalatz, Goñerri, Gorza, Iruña, Itza, Itzaltzu, Izaba, Jaitz, Jaurrieta, Lezaun, Lizarra, Lizoain-Arriasgoiti, Odieta, Olaibar, Ollaran, Oltza Zendea, Orkoien, Orontze, Orotz-Betelu, Otsagabia, Sartze, Txulapain, Uharte, Urzainki, Uztarroze, Zabaltza, Ziritza, Zizur eta Zizur Nagusia.

Eremu misto hori automatikoki hedatu ahalko da beste herri batzuetara, baldin eta herri horietako Osoko Bilkurak gehiengo osoz hartzen badu erabakia. Erabakiak eragingarritasun osoa izan

dezan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da”

**Azken xedapena.**

Foru Lege hau 2013ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesa adierazten dio Hipotekek Kaltetutakoen Plataformek bultzatu duten legegintzako herri-ekimenaren izapidetzeari.**

**NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa adierazten baitio Hipotekek Kaltetutakoen Plataformek bultzatu duten legegintzako herri-ekimenaren izapidetzeari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Utzarazpenen aurkako Herritarren Legegintza Ekimena babesteko ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioen azalpena:

Hipoteka ez ordaintzearen ondoriozko utzarazpenen arazoa bizi dute langabeziaren eta krisiaren biktima diren pertsonen: gero eta familia gehiago kolpatzen dituen arazo sozial bat da, eta lazgarria da ikustea zer-nolako kopuruetara ailegatzen ari den. Gizarteak, baldin eta ekitate sozialeko oinarritzko printzipioetan sinesten badu eta Giza Eskubideei buruzko 1945eko Adierazpena bere egiten badu, ezin du onartu bere kide gero eta gehiago gelditzea etxegabeturik.

Orain dela gutxi entzun dugu Estatuko alderdi nagusiak ados jartzen saiatzen ari direla, egoera arintzeko akordioaren batera –eta ez arazoa konpontzeko– ailegatze aldera.

Hipotekek ukitutakoen plataforma ezberdinak, zeinek hilabete asko baitaramatzate Nafarroako zenbait herritan eta Estatu osoan lan egiten, ageriko bidegabekeria horri aurre egiten ari zaizkio kalean. Familiak etxetik ateratzearen aurka egiten dute epeak agortzen direnean, eta egoera aldatzeko proposamenak egiten dituzte, baina behin eta berriro egiten dute topo ikuspegi honetatik desfasatuta eta bidegabea den hipoteken legearekin.

Antza denez, Nafarroako Parlamentuko alderdietara ere ari da heltzen arazo horren aurrean gizartearen erakusten ari den sentsibilizazioa, eta honako hau une egokia izan liteke babes sendoa erakusteko Hipoteken Legea aldatzea ahalbidetzen ahal duen herritarren legegintza ekimena bultzatzen ari direnei, bai eta egoera arintzeko neurriak hartzeko ere.

Hori dela-eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak espresuki adierazten dio bere babesa Hipotekek ukitutakoen plataformak sustatzen ari diren herritarren legegintza ekimena izapidetzeari, zeinarekin bat egin baitute, sinaduren bidez, nafar herritar askok eta askok.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du susta dezan arlo fiskalean eta Nafarroaren eskumenekoak diren beste arlo batzuetan arautu dadila, ordainean ematea, etxebizitza hipotekatuen jabeek beren betebeharrak kitatzeko neurri gisa.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abiaraz ditzan “alokairu soziala” erabakitasunez sustatzen duten jarduke-

tak, arrazoi ekonomikoak direla-eta etxebizitza bat lortzeko zailtasunak dituzten familia nafarrentzat.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konponbide bat azter dezan,

Vinsan jada gertatzen ari diren alokairu-utzarazpenen kasuetarako.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da funts publikoak erretira ditzan lehenengo etxebizitzaren utzarazpenak gauzatzen dituzten entitate finantzarioetatik.**

### *IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita funts publikoak erretira ditzan lehenengo etxebizitzaren utzarazpenak gauzatzen dituzten entitate finantzarioetatik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko eledun José Miguel Nuin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Sustapen eta Etxebizitza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da funts publikoak erretira ditzan lehenengo etxebizitzaren utzarazpenak gauzatzen dituzten entitate finantzarioetatik.

Zioen azalpena

2007tik 2011ko hirugarren hiruhilekora bitartean, Espainiako Estatuan exekuzio hipotekarioko 328.687 prozedura izan dira. Lau urtean, 2008tik 2011ko hirugarren hiruhilekora arte, 151.369 utzarazpen prozesu izan dira, jarduera finantzarioengatik premiatutako exekuzio hipotekarioko proze-

suen ondorioz. Nafarroaren kasuan, 2500 familia nafar baino gehiago dira egoera horretan suertatu direnak, 2007an krisialdi ekonomikoa, azken hila-beteotan areagotu dena, hasi zenetik.

Onartezintzat eta guztiz zuzengabetzat jotzen dugu zuzenbideko estatu sozial eta demokratiko batean, krisiaren ondorio guztiak hipoteka-kontratu alderik ahulenarentzat izatea, eta finantza-entitateek, bitartean, nahiz eta egungo krisiaren erantzuleak izan neurri handi batean, zergetatik ateratzen diren milioitako laguntzak jasotzea, beren gain inongo erantzukizunik hartu behar izan gabe, eta aldi berean, urtean milaka milioiko onurak sortzen jarraitzea.

Arazoaren larritasuna areagotzearen ondorioz, zenbait udal ekimen eragingarriak hartzen hasi dira; esate baterako, funts publikoak erretiratzea beren herrietan utzarazpenik ez gauzatzeko konpromisoa hartzen ez duten banku entitateetatik.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea funts publikoak erretira ditzan lehenengo etxebizitzaren utzarazpenak gauzatzen dituzten entitate finantzarioetatik.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea Nafarroan jarduten diren finantza entitate guztiei exijit diezaiezen berehala geldiarazteko lehenengo etxebizitzaren utzarazpen prozesu guztiak.

3. Nafarroako Gobernua premiatzea utzarazpenak gauzatzen dituzten finantza entitateetatik erretiratutako funts publiko guztiak jar ditzan banka etikoko erakundeetan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontu-ahalegin bat egin dezan kulturaren arloan.**

### **SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontu-ahalegin bat egin dezan kulturaren arloan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, jabeldura baten ondorio den ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da XXI. mendeko Nafarroaren beharrezko araberako kultur politika bat abian jar dezan; hau da, Europako eskualde gartu baten beharrezko araberakoa.

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko azaroaren 8an, kultura arloko politika orokorra dela-eta sozialisten taldeak aurkeztutako jabeldura bat eztabaidatu zuen.

Talde guztiak, salbu eta Gobernuari sostengua ematen diona, bat etorri ziren honako elementuez osaturiko diagnostiko bat egitean: ez dago berari-

azko kultur politikarik eta, horrenbestez, Nafarroako Kulturaren Plan estrategikorik ere ez; aurrekontua jaisten ari da arian-arian, eta horrek eragotzi egiten du Nafarroako kultur sarearen arazo nagusiei ekin ahal izatea; eta anbizio eta lidergo eska-za ikusten da abian jarritako programetan.

Nafarroako 2013rako aurrekontuen eztabaida hasteko egun gutxi falta direnean, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu; izan ere, aurrekontu horietan iragan mendeko laurogeiko hamarkadako mailetara erori da kulturarako aurreikusitako aurrekontua, nahiz eta UPNk legegintzaldi honetarako aurreikusitako helburuen arabera aurrekontua % 50 igo behar zen, halako moduan non Nafarroako Gobernuaren aurrekontuen % 1,5 bideratuko baitzen arlo honetara:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, krisiaren larria onartuta ere, aurrekontu-ahalegin bat egin dezan kulturaren arloan, 2013rako aurrekontuetan % 1era hurbildu ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa aurkez dezan Legebiltzarrean, abenduaren 31 baino lehen, lehendakariaren inbestidurako hitzaldian eta Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariaren adierazpenetan behin eta berriro iragarri bezala.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du goraka berrius dezan "udaletako kultur ekintzetarako laguntzak" izeneko kontusaila, halako moduan non, 2012ko deialdiko ordainketak jasotzeaz gain, 2013rako deialdia ere ongi ebatzi ahalko baita eta jarraitutasuna eman ahalko baitzaio bereziki landa eremuko Nafarroan beharrezkoa den kultur politikari.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legezko ekimena abian jar dezan, Nafarroako Parlamentua izate aldera Nafarroako herriaren ordezkari demokratikoa Estatuarekiko negoziatioetan.**

### *PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legezko ekimena abian jar dezan, Nafarroako Parlamentua izate aldera Nafarroako herriaren ordezkari demokratikoa Estatuarekiko negoziatioetan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 2012ko azaroaren 8ko Osoko Bilkuran aurkeztutako jabelduratik heldu den ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak berak jabelduraren eztabaidan onartu zuen 2012ko ekitaldi politiko honetan Nafarroako Gobernuak ez duela konstituziokontra-kotasuneko errekurtsio bakar bat jarri; Nafarroako Parlamentuak, aldiz, konstituziokontra-kotasuneko bost errekurtsio sustatu ditu.

Eztabaida hartan bertan, Nafarroako Gobernuak adierazi zuen ez daukala inolako asmorik Nafarroako Parlamentuak jarritako konstituziokontra-

tasuneko errekurtsio horietako bat bera ere babes-teko edo haiekin bat egiteko.

Gertakari horiek printzipio aurre-demokratikoen eta araudi zaharkituaren ondorio eta adierazpide dira; horren arabera, Nafarroako Gobernuari dago-kio Nafarroaren izenean Estatuarekin negoziatzea, bai hitzarmenen arloan, bai foru araubidearenean. Halere, printzipio eta araudi horrek ez dute oinarri demokratikorik, zeren Nafarroako herriaren ordezkari-tza politikoa Nafarroako Parlamentuari dago-kio, eta berak dauka.

Printzipio eta arau horien defizit demokratikoak eta modernotasun-defizitak, halaber, obskurantis-moa eta Nafarroaren ordezkari-tza politikotik alden-tzea dakarte, bai eta eraginkortasunik eza ere, Nafarroaren eskubideak eta interesak defendatze-an.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

**1.** Nafarroako Parlamentuak adierazten du berari dagokiola, Nafarroako herriaren ordezkari demokratikoa den aldetik, Estatuarekiko harremanetan ordezkari-tza politikoa izatea, Hitzarmen Ekonomikoa eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzearekiko buruzko Lege Organikoa gaurkotzeko edo aldatzeko negoziatioetan.

**2.** Nafarroako Gobernua premiatzen du lege ekimena balia dezan, lege ezarritako bideen bidetatik, Nafarroako herriaren ordezkari-tza demokratikoa Nafarroako Parlamentuak eduki dezan Estatuarekiko negoziatioetan.

**3.** Beharrezkoak diren lege aldaketak susta ditzan, lege-eraginez ezartze aldera Nafarroaren eta Estatuaren arteko negoziatio politikoetako subjek-tua eta protagonista haren ordezkari demokratikoa izan behar dela; alegia, Nafarroako Parlamentua.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an.

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2013ko ekaina eta azaroa bitartean egin ditzan Ledeako zubia sendotzeko lanak.**

### *BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2013ko ekaina eta azaroa bitartean egin ditzan Ledeako zubia sendotzeko lanak.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Maiorga Ramírez Errok eta Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio

hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Zenbait alditan, bai Osoko Bilkuran, bai Batzordean, Nafarroako Gobernuak, Sustapeneko kontseilarien bidez, konpromisoa hartu du obrak egiteko Ledeako zubian, N-240 errepidetik herrirako sarbidean, baina orain arte ez da obra egiteko modurik izan. Obra hori egiteko datari buruzko konpromisorik lortzeko modurik ez dagoenez, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkezten du:

Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharreko zuzemenak egin ditzan, 2013ko ekainetik azarora bitarteko hilabeteetan egite aldera Ledeako zubia sendotzeko obrak, zeinak, Sustapeneko kontseilariak urriaren 25eko eta azaroaren 8ko osoko bilkuretan adierazitakoaren arabera, soilik bitarte horretan egin baitaitezke, eta ez beste edozein urtealditan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 13an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jaso

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekimenak presta ditzan Martzillako Ultracongelados de la Ribera hutsik geratuko litzatekeen azpiegituraren ustiapenerako.**

### *SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ekimenak presta ditzan Martzillako Ultracongelados de la Ribera hutsik geratuko litzatekeen azpiegituraren ustiapenerako.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkezten du. Mozioaren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekimenak presta ditzan Martzillako Ultracongelados de la Ribera hutsik geratuko litzatekeen azpiegituraren ustiapenerako.

Orain dela gutxi, Martzillako Ultracongelados de la Ribera langileen ordezkariak agerraldia egin zuten Nafarroako Parlamentuko Industria Batzordean, azaltze aldera zein den enpresa horren egoera, behin betiko ixteko erabakia hartu ondoren.

Haien errebindikazioen artean, hiru kezka agertu zituzten funtsean: bata, lan erreformari buruzkoa, zeina, haien ustez –talde guztiak ados geunden, salbu eta PP eta UPN, Diputatuen Kongresuan erreformaren aldeko botoa eman baitzuten–, indargabetu egin beharko bailitzateke, eragin oso kaltegarria izaten ari delako, langileak samaldaka kaleratzea dakar-eta, langileak babesgabetsun erabatekoan utziz; beste bat, jarduera ekonomikoak sortzerakoan Foru Administrazioak erkidegoko lurralde guztiei nahitaez eskaini beharreko aukera berdintasunari buruzkoa; eta hirugarrenik, langileen ordezkariak eskatzen zuten, ikusita Ultracongelados de la Ribera ixtea itzulezina dela, Nafarroako Gobernuak ahal duen guztia egitea, hutsik gelditzen diren nabeak erabili ahal izan daitezkeen haietan jarduera ekonomikoa sortu ahal izateko, gertatu diren irazpenek eskualdean, eta, zehazki, Martzillako herrian, sortutako ondorioak arintzeko.

Iradokizun edo errebindikazio horiek geure eginez, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko erabaki proposamena aurkez-

ten du, Parlamentuko Industria Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

1) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere esku dauden ekimen guztiak abiaraz ditzan, akordio bat ixten saiatze aldera Ultracongelados de la Ribera enpresa ixtearen ondorioz orain hutsik gelditzen diren nabeen jabeekin, horietara bideratu ahal izateko Ardo taldearen erabaki horren ondorioak arinduko duen enpresa jarduera, erabaki horrek gure herrian sortu zen lehen izozte-fabrika behin betikoz ixtea dakarrelako.

2) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontuan har ditzan aukera berdintasunaren printzipioa eta lurralde-orekaren printzipioa, industria-jarduera garatzeko guneak ezartzerakoan.

3) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gure produkzio-egiturako enpresa tradizionalak bere egiten dituzten multinazionalen modus operandiaren gaineko zaintza mantentzeko, enpresa horiek bertan jarraitzeko erantzukizuna onartze aldera, horixe delako etorkizuneko garapena eta enplegua ziurtatzeko modurik onena; izan ere, nekazaritzako produktuen eraldaketarena bezalako sektore batean, berebiziko garrantzia dauka landa eremuetako despopulazioa ekiditeko eta denen aukera berdintasuna bermatzeko. Halaber, Nafarroako Gobernua premiatzen da zaintza eraginkorra egin dezan multinazional horiek gure baratzeko produktuen irudia eta prestigioa baliatzearen gainean, ziurtatze aldera Nafarroakoak diren produktuak Nafarroako produktu gisa ager daitezkeen, Nafarroakoak izan gabe Nafarroan ontziratu edo paketatzen direnak ez bezala.

Iruñean, 2012ko azaroaren 13an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berrazter ditzan entitate finantzarioekin dituen harreman operatiboak.**

### *MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berrazter ditzan entitate finantzarioekin dituen harreman operatiboak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Manu Ayerdi Olaizola foru parlamentari atxiki-gabeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Gobernuaren eta finantza entitateen arteko harremanari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Adostasun handia dago esatean bizi dugun krisiaren arazorik handienetakoa dela finantzaketa lortzeko zailtasun ikaragarria. Ados egon gaitzeko, halaber, esatean egoera horren atzean daudela, alde batetik, finantza-sektorearen krisi oraindik itxi gabea, eta, beste alde batetik, eskariaren ahulezia, batez ere estatuko eskariarena, baina baita nazioartekoarena ere, gure bezero-merkatu nagusiei dagokienez, eta etorkizunari buruzko ziurgabetasuna.

Halere, egungo krisiak herrialde guztiei berdinean eragiten ez dien modu berean, finantza-entitate guztien balioak eta egoera ere ez dira berberak; hortaz, inbertsioari eta herritarren arazoei dagokienez entitate horiek duten jarrera eta egiazko konpromisoa ere ez dira berberak.

Egia da finantza entitateak erakunde pribatuak direla, eta egia da orobat Nafarroako Gobernuak ez daukala eskumenik Nafarroan jarduten diren entitate horien lege-esparrua arautzeko.

Gainera, Nafarroaren kasuan, Nafarroako Kutxarik gabe gelditzeak eta CaixaBanken sartzekak berekin ekarri du tresna bat galtzea jokabideetan eta balioetan aitzindari izateko, finantza-jardueraren lege-esparrua beteze hutsetik harago, gure lurraren beharrezanekiko bat-etortze eta hurbiltasun handiagoa erakuste aldera. Hori guztia garbi asko ikusi dugu utzarazpenen auzi izugarriari emandako erantzunean. EAEn, Kutxabank gauza izan da pauso bat harago joateko, gero besteek jarraitu duten ildo berezitu bat ezarriz. Nafarroan, jada ezin da halakorik egin. Areago, zenbait hedabidetan ikusten ari garenez, Nafarroako Kutxa CaixaBanken sartu zenez geroztik, beheraka ari dira berrikusten Nafarroako enpresei onartutako arriskuak, eta horrek eragin negatiboa du haien finantza ahalmenean.

Hori, dena den, ez da eragozpena jarri beharreko baliabideak jar daitezkeen nolabaiteko eragina izateko, horretarako inolako aukerarik izanez gero, baita eragin hori oso mugatua bada ere.

Izan ere, Nafarroako Gobernua, administrazio publikoa den aldetik, harremanetan dago finantza-entitateekin. Haien bezeroa da, pasiboari nahiz aktiboari dagokienez, finantzaketari dagokienez eta saldo positiboari dagokienez. Nafarroako Gobernuak maileguak bankuekin negoziatzen dituenean, interes-tasa jakin bat hitzartzen du. Nafarroako Gobernuak saldo positiboak daukanean, saldo horien ordainsari bat ere hitzartzen du. Egunerokoan, gainera, bankuekiko operazioek komisioen nahiz zeharkako konpentsazioen –gizarte-aseguruen ordainketa– negozio oso bat sortzen dute finantza entitateentzat. Jarduera horrek guztiak, logikoa den bezala, etekin bat dakarkie bankuei. Nafarroako Gobernuak kudeatzaileen helburua da lortzea bankuek Gobernuarekiko harremanean lortzen duten etekina eta, hortaz, Nafarroako herritar guztiek ordaindu beharreko kostua, ahalik eta txikiena izatea.

Nafarroako Gobernuaren eta finantza entitateen arteko harremana, berriz, hitzarmenen edo berriazko finantzaketa-lerroen bidez egin daiteke, eta pentsatzekoa da Gobernuak nolabaiteko kontraprestazioa lortzen duela horietan, finantza entitateek enpresei finantzaketa baldintza jakin batzuk eskaintzearen truke. Halere, gauza bat da hitzarmen bat sinatzea, eta beste bat, ondoren sinatzen diren operazioen egiazko kopurua eta bolumena.

Kontua da egungo testuinguruan Nafarroako gizarteari bereziki interesatzen zaizkiola, beste edozeini bezala, finantza entitate saneatuak, norbanakoen egoera dramatikoaren aurrean sentikorak, kredituak emanda inbertsioari laguntzeko egiazko borondatea dutenak. Ez dira interesekoak beren ahuleziaren ondorioz finantzaketa berrirako euro bakar bat ematerik ez duten entitateak, mahai gainean jartzen diren operazioak nahi bezain interesgarriak direnean ere.

Interes hori Nafarroako Gobernuaren hornitzailer-bezero harremanetara eramanez gero, ez da interesekoa bankuekin negoziatzea egitea Nafarroako Gobernuari bere operazioetan eskainitako baldintzei soilik erreparatuta; aitzitik, oso ona litzateke Nafarroako Gobernuak bere banku-negoziazioetan aintzat hartzea banku bakoitzak Nafarroan inbertitzeari dagokionez duen egiazko konpromisoa, operazio zehatzen baldintzez gain; esate baterako, enpresei edo partikularrei emandako kreditu-bolumenaren urteko bilakaeraren bidez. Jardunbide egokien kode jakin batzuei nahitaez atxikitzea ere bai.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere lehentasunak berrazter ditzan finantza entitateekiko harreman operatiboei dagokienez, halako moduan non prezioa, bolumena eta zerbitzua bezalako irizpide operatibo hutsez gain, hainbat adierazle ere kontuan hatuko baititu, entitateek finantzaketari dagokionez Nafarroan duten egiazko konpromisoa, bai eta norbanakoen egoera dramatikoaren kudeaketa sentsibilitatea ere, neurtzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio txosten bat argitara dezan urtero, zeinetan jasoko baita Nafarroako Gobernuak sortzen duen banku-negozioan finantza entitate bakoitzak duen kuotaren bilakaera, eta bilakaera hori konparatuko baitu entitate bakoitzak Nafarroan emandako kredituaren bolumenaren urteko bilakaerarekin.

Iruñean, 2012ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez diezaien dietarik ordaindu bilkuretara joaten ez diren Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko administrazio kontseiluetako kideei.**

*ENRIQUE MARTÍN DE MARCOS JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Enrique Martín de Marcos jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ez diezaien dietarik ordaindu bilkuretara joaten ez diren Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko administrazio kontseiluetako kideei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Enrique Martín de Marcos jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen du ez diezaien dietarik ordaindu bilkuretara joaten ez diren Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko administrazio kontseiluetako kideei.

Parlamentu-talde Popularrak, 8-12/PES-00137 zenbakiko espedientearekin ekimena izapidetzean, informazioa eskatu zion Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko sozietate publikoetako dieten ordainketari buruz.

Nafarroako Gobernuak, berak 2012ko azaroaren 6an, ondokoa baieztatu du, administrazio kontseiluetako kideek bilkuretara joan ezean ordain-

sariak edo dietak jasotzeko eskubidea galtzen ote duten galdetu zaionean:

“Administrazio Kontseiluen bilkuretara ez joateak ez dakar berekin sozietateetako batzar orokorretan dietak direla-eta ezarritako zenbatekoak ez ordaintzea”

PES-137 zenbakiko galderari emandako erantzunak beste informazio berdin deigarri batzuk islatzen ditu; esate baterako, badirela parlamentariak dietak jasotzen dituztenak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko administrazio kontseiluetara kide gisa joateagatik, edo entitate horrek dietak ordaintzen dituela beren emaitza-kontuetan galerak dituzten sozietateetan.

Hori guztia ikusita, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren jarduera dela-eta Nafarroako Gobernuak emandako datuek herritarrengan sortzen duten harridura ikusita, Talde Popularrak uste du zenbait ekimen planteatu beharra dagoela,

entitate publikoen gardentasunaren, biziberritzearen eta mehetzearen mesedetan eta jarduera politikoan jardunbide onak aplikatzeko.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua honakoak egitera premiatzen du:

1. Bertan behera utz dezan, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko eta sozietate publiko atxikietako administrazio kontseiluetan, dieten ordainketa, bilkuretara joaten ez diren kideen kasuan.

2. Bertan behera utz dezan dieten ordainketa, beren emaitza-kontuetan galerak dituzten sozietate publikoetako administrazio kontseiluetan.

3. Bertan behera utz dezan, aipaturiko administrazio kontseiluetan, Nafarroako Parlamentuko kideei ezarritako dieten ordainketa.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Enrique Martín de Marcos

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Parlamentu honek eginiko eskaria eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioari eska diezaion LTDaren emisioetarako berariazko barruti baterako lizentziak emateko Baztan-Bidasoan.**

### *KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2012ko azaroaren 15ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Parlamentu honek eginiko eskaria eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioari eska diezaion LTDaren emisioetarako berariazko barruti baterako lizentziak emateko Baztan-Bidasoan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Parlamentu honek eginiko eskaria eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioari eska diezaion LTDaren emisioetarako berariazko barruti baterako lizentziak emateko Baztan-Bidasoan.”

Iruñean, 2012ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasuneko kontseilariak lan-bilera bat egin dezan Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeetako langileen ordezkariekin, zerbitzua kanpoan kontratatze-ko erabakia azaltzeko haiei.**

*OSASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2012ko azaroaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasuneko kontseilariak lan-bilera bat egin dezan Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeetako langileen ordezkariekin, zerbitzua kanpoan kontratatze-ko erabakia azaltzeko haiei".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasuneko kontseilariak lan-bilera bat egin dezan Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeetako langileen ordezkariekin, zuzenean eta bitartekaririk gabe azal dakien zerbitzua kanpoan, Mediterránea de Catering enpresari, kontratatze-ko erabakia, bai eta ea prest dagoen

ala ez ukitutako langileen eskariak aintzat hartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahalegin bat egin dezan, kasuko lege-bideen barruan, zerbitzua kanpoan kontratatze horrek enpleguari dagokionez izanen dituen ondorio negatiboak arintzen saiatzeko. Halaber, enplegu horretan lortutako errenta familiararen diru-sarrera iturri bakarra zuten pertsonetikiko sentsibilitate berezia edukitzea eskatzen da.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu Osasun Departamentua premiatzen du kontuan har ditzan, Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeak pribatizatzearen eragina gutxitze aldera, langileen ordezkariak proposatzen dituzten neurriak, eta, mozio hau onetsi eta astebeteko epean, mahai sektoriala dei dezan premiaz proposamen horietaz mintzatzeko."

Iruñean, 2012ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Asiako liztorrak Nafarroako erlezaintzan duen eraginari buruzkoa.**

*MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Asiako liztorrak Nafarroako erlezaintzan duen eraginari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Manu Ayerdi Olaizolak, foru parlamentaria den aldetik eta Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioeko kontseilari José Javier Esparza jaunak ahoz erantzun dezan Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioeko Batzordean.

Asiako liztorrak –Vespa velvetina, sailkapen zientifikoaren arabera– kolonizatu egin ditu Nafarroako ipar-mendebaldeko, eremu aurrepiriniotarreko eta piriniotarreko udal gehienak eta, beharbada, Foru Komunitate guztia eta, bereziki, erlezaintzan aritzen diren leku guztiak, kalte osoo larriak eraginez erlauntzen jabeak eta eztingileak, haien erlauntzak suntsitzen baitituzte; ondorioz, kalte ekonomiko larri eta konponezina eragiten diete, biodibertsitateari eta ingurumenari begira dakarten kalte kalkulaz gain.

Kaltetuek “hiltzaile” izendatu dute, arrazoi osoz, Asiako liztorra. Haren presentzia detektatu zenetik hamar urte igaro ez direla, ugaldu egin da, hainbeste ugaldu non, mehatxu bat izatetik harago, baieztatu baitaiteke espezie arrotz baten inbasio oso arriskutsu baten aurrean gaudela, eztingile txiki

eta ertainaren bertako erlezaintza tradizionalaren amaiera ekar dezakeena, garatzeko bidean dagoen sektore bat eta, nolabait, eskualde-sare bat osatzen ari zirenean Baztan, Bertizarana, Malerreka, Bortzirriak, Leizaran eta beste herri batzuetan.

Aldi berean, galera handi bat ere bada; izan ere, diru-sarrera osagarri bat lortzeko modu bat izan da landa ekonomia beti delikatuentzat. Asiako liztorra mehatxu larri eta ondorio kalkulaz gaineko arrisku potentzial bihurtu da, haren ugaltze-ahalmen apartekoa eta antza denez geldiezin ikusita, eta naturaren beste eremu batzuetan eta sektore ekonomiko batzuetan zer ondorio negatibo eragin litzakeen ez dakigula; hori dela eta, ondoko galderak aurkezten ditugu:

1.- Egin al da azterlanik Asiako liztorrak Nafarroan duen presentziari buruz? Ba al dago haren presentziaren eta ekintza kaltegarriaren gaineko oharrenik? Zein eremutan eta zein proportziotan agertu da? Zenbat erle-ustiategitan eta zein proportziotan ari da kalteak sortzen? Zenbateko kalteak eragiten ari da? Egin al da informazio- edo lan-bilerarik erlezainekin kaltearen norainokoa ezagutzeko eta hartu beharreko neurriak aztertzeko? Nafarroako zer eskualde eta herritako erlezainekin egin dira bilera horiek?

2.- Erlezainen sektoreaz gain, zer beste sektorek paira ditzakete edo uste da paira ditzaketela Asiako liztorraren erasoen ondoriozko kalteak? Zeintzuk dira edo izan daitezke sektore horiek? Zer neurri eta zer-nolakoak hartu dira espezie horren inbasioaren eta kolonizazioaren ondorioak prebenitzeko, eragozteko eta, azken batean, arintzeko?

3.- Aurreikusitako al da jarduketa protokoloren bat, Asiako liztorraren ageriko lurralde-hedapenaren jarraipena egiteko, babesteko eta hura mugatzeko eta hari aurre egiteko eta kontrolatu eta, ahal baldin bada, desagerrarazteko?

4.- Aurreikusitako al da konpentsazio edo laguntza teknikorik edo diru-laguntzarik kaltetutako erlezai-

nentzat? Hala baldin bada, zer-nolakoak dira eta zer muga dute? Zer irizpide dago horiek lortzeko eta aplikatzeko? Zenbatekoak dira?

Erantzuna idatziz eta lehenbailehen ematea eskatzen da; izan ere, espezie inbaditzaile horren

jarduna nabarmen areagotu da, eragiten ari den kalteak oso larriak dira, eta gizartean sortzen ari den alarma nabarmena da.

Iruñean, 2012ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

---

## **Galdera, jakitekoa Nafarroak ekitaldirik eginen duen Espainian 2013an ospatuko den Gaixotasun Arraroen Urtearekin lotuta.**

### *MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa Nafarroak ekitaldirik eginen duen Espainian 2013an ospatuko den Gaixotasun Arraroen Urtearekin lotuta.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Osasuneko kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Osasuneko ministro Ana Matok amaiera eman zion, urriaren 26an, Gaixotasun Arraroen Biltzar Nazionalari. Amaiera ekitaldi hartan iragarri zuen Espainian 2013a izanen dela gaixotasun arraroen urtea.

Hori dela-eta, jakin nahi dugu ea Nafarroan ekitaldirik eginen den eta ospakizun horri lotuta bestelako ekintzarik eginen den, Gaixotasun Arraroen Erregistroa sortzeaz gain.

Iruñean, 2012ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

---



## **Galdera, zaintzako langileei euskarazko prestakuntza ukatzeari buruzkoa, Euskarabideak ikastaro batean onartu eta gero.**

*NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, zaintzako langileei euskarazko prestakuntza ukatzeari buruzkoa, Euskarabideak ikastaro batean onartu eta gero.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak euskarazko prestakuntza ukatzen die zaintzaileei, Euskarabideak ikastaro trinko baterako onartu ostean, laneko lizentziarekin. Zergatik?

Iruñean, 2012ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak izanen duen jarrerari buruzkoa, Nafarroako Foru Komunitatean farmazia-prestazioak osatzeari buruzko Foru Legearen aurka aurkeztu den errekurtsioa dela-eta.**

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak izanen duen jarrerari buruzkoa, Nafarroako Foru Komunitatean farmazia-prestazioak osatzeari buruzko Foru Legearen aurka aurkeztu den errekurtsioa dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ak dioenari jarraiki, honako galdera helarazten dio Nafarroako Gobernuari, zehazten den osoko bilkuran ahoz erantzun dezan.

Iragan urriaren 11n, botiken osagarritasunaren inguruko lege proposamen bat onartu zen Nafarroako Parlamentuan, Alderdi Popularrak dekretuz ezarritako "kopago"aren formula berria bertan behera uzten zuena. Legea oraindik indarrean jarri ez den arren, espainiar Gobernuak legearen aurkako helegitea aurkezteko tramiteari ekin dio. Horren aurrean, honakoa galdetu nahi dugu:

Zer jarrera izango du nafar Gobernuak helegite honen aurrean? Zer nolako ekimenak egingo ditu Parlamentuak onartutako legearen alde egiteko eta berau babesteko?

Iruñean, 2012ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

### **GALDERAREN TESTUA**

Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamendu-

## **Galdera, jakitekoa aurreikusita ote dagoen kalteordainik ematea eraikuntza enpresari, Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegiko lanen etetea dela-eta.**

### *AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa aurreikusita ote dagoen kalteordainik ematea eraikuntza enpresari, Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegiko lanen etetea dela-eta.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegia Nafarroa 2012 Planean sartutako obra bat da, eta 10 milioi euroko kontusail bat dauka esleiturik Nafarroako 2013rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuan. Hauxe galdezen diogu Nafarroako Gobernuari:

– Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegia egiteko obrak geldituko balira, kalteordaina eman beharko litzaioke enpresa eraikitzaileari? Baiezkoan, enpresa eraikitzailearentzako kalte-ordainaren zenbateko osoari buruzko xehetasunak eman dakizkigun eskatzen dugu.

Iruñean, 2012ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

## **Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko laborategi zentralizatueta eginen den analitika motari buruzkoa.**

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jasok andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ospitaleguneko laborategi zentralizatueta eginen den analitika motari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Zer analitika-mota eginen dira Nafarroako Ospitaleguneko laborategi zentralizatueta? Lizarrako eta Tuterako ospitaleetan orain arte egindako jardueraren zer ehuneko eginen da hemendik aurrera laborategi zentralizatueta?

Iruñean, 2012ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jasok

## **Galdera, 2011n eta 2012an entitate pribatuekin eginiko osasun arloko deribazio eta itunen datuei buruzkoa.**

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jasok andreak aurkeztutako galdera, 2011n eta 2012an entitate pribatuekin eginiko osasun arloko deribazio eta itunen datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Azaroaren 15ean, osasun arloko entitate pribatuekiko itunei eta deribazioei buruzko agerraldi batean, kontseilariak 2011ko eta 2012ko deribazioei eta zentro bakoitzari buruzko datuak eman zizkigun.

Bereziki interesatzen zaizkigu espezialitate bateko eskariari aurre egiteko unean-unean izandako gabeziak eta unean-unean izandako gainkargak, kirurgia-operazioei dagokienez. Kontseilariak eman zizkigun datuei erreparatuta, gustatuko litzaiguke zehaztea nolako operazioak deribatu diren zentro bakoitzera –CUNera eta San Miguel klinikara– 2011n eta 2012an, eta horietako bakoitzak operazio mota bakoitza dela-eta kobratutako tarifak ere bai.

Iruñean, 2012ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jasok

## **Galdera, Espacios Culturales, S.A. enpresa publikoak azken kontabilitate-itxierara arte izandako bilakaerari eta 2012ko abenduaren 31ko itxiera-aurreikuspen eskuragarriari buruzkoa.**

### *KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAN IZAPIDETUKO DA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Gobernuako komunikazioa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galdera bat dela eta –galdera Espacios Culturales, S.A. enpresa publikoak azken kontabilitate-itxierara arte izandako bilakaerari eta 2012ko abenduaren 31ko itxiera-aurreikuspen eskuragarriari buruzkoa zen–, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galdera, Espacios Culturales, S.A. enpresa

publikoak azken kontabilitate-itxierara arte izandako bilakaerari eta 2012ko abenduaren 31ko itxiera-aurreikuspen eskuragarriari buruzkoa, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetuko dela, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Kontseilariak erantzun dezan. Galdera 2012ko azaroaren 8ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera